

Tratamenduen bilakaera, to eta no

PELLO ETXANIZ*

1. SARRERA

Lan hau zerk eragin didan hobeto ulertuko delakoan, zilegi bekit, sarrera moduan neure bizitzako zenbait pasadizo labur irakurtzera ematea.

Umetan ohartu nintzen euskaraz ez zela toki guztietan nire herrian bezala hitz egiten, kilometro gutxi asko zela edozein norabidetan honako edo halako hitz bertze eraren batean edo doinu ezberdinez entzun nezan. Ez zen sekretua, edonork zekien ondoko herrikoen ateraldi xelebreen berri¹. Gaztetan ohartu nintzen ez zela eskualde guztietan nire eskualdean bezala hitz egiten, ekialdera eta mendebaldera, iparraldera eta hegoaldera, euskalkiak bazirela jakin nuen. Eta hamazazpi urterekin Donostian neure adineko bertze mutil batek “utziko al didazu bolia?” galdetu zidanean ohartu nintzen euskalkia ez zen bertze zerbait bazela han². Harrez gero etengabeko kokatze, moldatze, egokitze eta orekatze lanetan jarri nuen neure burua hango eta hemengo euskaldunekin hitz egiteko. Neure buruarekin konpromezu batera iritsi nintzen, eskizofrenia³ saihestearren, erabaki asimetrikoa hartuz, hau da, gizonezkoei “toka” eta emakumei “noka”-rik ez, salbuespenak salbuespen⁴; irakaskuntzan murgildurik ikasleei ez bata ez bertzea⁵. Honenbestez nolabaiteko oreka lortu nuen. Bortz urte dela sorterriko

* Euskal Filologian lizentziatua.

¹ Jakinekoak dira herrien arteko lehiak. Hizkuntza ere aitzakia ederra genuen aldemenekoak barrantarri utziz txisteak egiteko. Errate batera, urari “ude” erraten ziotenez, udari nola? Negu edo?

² Herrizulo izanik, mundu zabala gehiegi ezagutzeke, une batez nire garuneko neuronon sinapsiek gainez egin zuten. “Zer gertatzen da hemen? Mutil horrek zerbait arraroa du edo zer demontre da?”. Erran beharrik izan gabe laster ulertu nuen harreman desberdin haien jokoak nolakoak zen. Horrelako egoeretan hitzunez egin ohi dugun legez, malgutasunez moldatuz, hausnarketa sakonik gabe.

³ Barka bedi gehiegikeria, baina nire euskalkiko harreman moldearen eta berrien arteko gatazka adierazteko hitzik aproposena iruditu zait.

⁴ Arrazoi konszienterik gabe sexuen arteko diskriminazioa egin nuen. Gizonezkoei, denei “toka” egiten nien berriak berdin erantzuten ez bazidaten ere (salbuespenak adin alde handia zutenak, ni baino askoz zaharragoak, alegia, eta “botere faktikoetako” zenbait kide, adibidez apaizak, ziurrenik tikitako heziketaren islada) eta emakumei berriz, “noka” egiten nien neuri “toka” erantzuten zidatenei, eta bertze inori ez.

⁵ Niretzat berezkoa “toka” eta “noka” alokutiboak erabiltzea izanzen zen arren, inguruak eraginda egiten nuela suposatzen dut.

neska batek mutil gazte batzuek "toka" mintzo zitzaizkiola erran zidanean hasi nintzen pentsatzen zergatik gerta zitekeen halako jokaera xeblea.

Honaino iritsi dira subjektibotasunaren zipriztinak eta, hala nahi nuke, hemendik aurrera hainbeste "pertsoneizatu" gabe lotuko natzaio lanari.

Izenburuak eta terminologiak zalantzak sortu dizkirate, denetik aurkitu baitut. Azkenik "tratamendua" hautatu dut izenburu, eta lan honetan erabiliko den terminologia garbi uzteko azalpen labur baten beharrea nago. Ez da ezer berririk, baina okerreko interpretaziorik izan ez dadin beharrekoa deritzot.

Batez ere hau guzti hau aditzetan isladatzen denez aurrena aditz alokutibo eta ezalokutibo deritzanak aipatu behar dira. Horixe da lehenengo bereizketa "hartzailea" kontutan hartzen duena eta ez duena. Alokutiboa, entzulearen sexua ezezik, hiztunaren eta entzulearen arteko zenbait harreman ere kontutan hartuz aldatzen den aditz mota dugu. Baina alokutiboaz aritzean ere, "hika", "zuka", "hitanoa", "zutanoa", "berorika", "xuka", "toka", "noka", hainbat izenen arteko nahasketa gerta litekeenez zein eta nola erabiliko dudan zehaztuz ekingo diot lanari. Kontzeptu guztiak argitzeko adibideak, iragankorrak eta iragangaitzak, eskainiko ditut:

EZALOKUTIBOIA ⁶	ALOKUTIBOIA			
	HITANOIA		ZUTANOIA	BERORIKA ⁷
	TOKA	NOKA		
Ni naiz Nik dut	Ni nauk Nik diat	Ni naun Nik dinat	Ni nauzu Nik dizut	Ni naiz Nik dut
	Hi haiz* Hik duk	Hi haiz* Hik dun		
Hura da Hark du	Hura duk Hark dik	Hura dun Hark din	Hura duzu Hark dizu	Hura da Hark du
Gu gara Guk dugu	Gu gaituk Guk diagu	Gu gaitun Guk dinagu	Gu gaituzu Guk dizugu	Gu gara Guk dugu
Zu zara Zuk duzu			Zu zara* Zuk duzu	Berori da Berorrek du
Zuek zarete Zuek duzue	Zuek zarete* Zuek duzue	Zuek zarete* Zuek duzue	Zuek zarete* Zuek duzue	Beroriek dira Beroriek dute
Haiek dira Haiek dute	Haiek dituk Haiek ditek	Haiek ditun Haiek ditun	Haiek dituzu Haiek dizute	Haiek dira Haiek dute

* 2. pertsonen adizkiak sailkapen honetatik at utz zitezkeen, "alokutiboan" paradigmagan kokatu gabe ere "hartzaileari" erreferentzia egiten baitiote.

⁶ Alokutiboari oposaketa eginez deituko dut "ezalokutiboa". Behar bada "adizki neutroa" dei zitezkeen, hartzailea kontutan hartzen ez duena.

⁷ Berorika ia desagertutzat jo daitekeela uste dut, berorika erabili izan duen hiztunik oraindik bizi bada ere. Adineko pertsona batzuei entzun izan diet apaiezei mintzo zitzaizkiela, baina pertsona beroriengan somatu dut jarrera aldaketa, garai berrietara moldatuz edo.

Edozein gai delarik ere erabateko ziurtasunez eginiko baieztapenak oso zailak badira, are eta zailago hau bezalako gai batekin⁸. Estatistika, inkesta, laginak, eta makroikerketak dira soziologoek armak. Nik, neure aldetik, eta ezinbestean, desarmaturik, gogoeta egin nahi nuke, ahal delarik nahastu gabe, ustez zerbait gehitu dezakedalakoan.

“Tratamenduen” barruan batez ere hitanoari buruz arituko naiz. Alokutiboari⁹ buruz arituz hiztunen arteko harremani eginen zaie erreferentzia. Gizatalde bateko hiztunen artean izan litezkeen harremanek (adiskidetasun, adin, sexu, eta behar bada, gizarteko “rol” eta botere ezberdintasunak) hiztunen ahotan eragin ditzaketen aldaerak, bai izenordeetan, bai aditzetan. Euskarari dagokionean, begien bistakoa da mezua eragile ugari eralda lezakeela. Eragile deigarriena eta bereizgarriena bi sexuen bereizketa dugu, aditzen paradigma goitik behera berreraikitzen baitu.

Euskararen tratamendua ikuspegi ezberdinetatik azter liteke, historian zehar izan duen bilakaera dela, dokumentu zaharretako erabilera dela, gaur egungo egoera soziolinguistikoa baldintzatzen duena dela... Dena dela, egiteko ugari legoke oraindik ere, eta lantxo honen asmoa nahikoa xume litzateke, alde batetik gure euskal hiztunen joera nabariena edo agerian utzi eta bertze batetik euskarako “tratamenduen” bilakaerak noranzko bidea har dezakeen iragartzen edo asmatzen saiatu, aldi berean norabide horretan zuzentze, okertze edo desbideratze posibleak eztabaidatuz.

Leizarraga bere “Aita gurean” Jainkoari toka mintzo zitzaionetik tratamenduek bilakaera bortitza jasan dute, iraultza ere dei litekeena. Hitanoak historikoki izan dituen gaitzesleak kontaezinak izan dira, eta tratamendu horren ordezkatzeari etengabea izan dela ukazina da. Gainera, jakinekoea denez, delako “tratamendu” hori ez da Euskal Herriko eskualde guztietan berdina, ez dira trataera guztiak leku guztietan ageri, eta ageri direnetan ere tokian tokiko berezitasunak dituzte. Ertaroan, dirudienek, gure hizkuntzak ezezik gure ingurukoek ere, tratamendu aldaketa izan zuten; lehenago aipatu den bezala lan honen asmoa ez bada ere, guztiz interesgarria litzateke elementu berri horiek sartu aurretik zein aditz paradigma erabiltzen zen, zein erabilpen sozial zuten tokak eta nokak eta beste kontu asko. Baina haria galdu gabe, historikoki ezagunago den “tratamenduaren egoera”, guri neurri batean iritsi zaiguna, aztertuko dut oraingo honetan.

2. KOKAPENA

Aditz alokutiboen galeraren prozesu historikoa, gehienetan hizkuntzaren beraren galerarekin batera gertatua, gure aurreko belaunaldiak ezagutu dituen edonork baieztatu dezakeen egia da. Baina, berriz lehenago erranikoa errepikatuz, ez da era berean gertatu esparru eta eskualde guztietan. Oro har, gero eta erabilpen eremu txikiagoa duela erran izan da, eta arrazoi ezberdinak direla medio, hizkuntzaren berreskurapen prozesuan sarturik bete-betean, euskara batuaren azken hamarkadetako garapenak ez dirudi eraginik izan duenik. Azken hamarkadetako hizkuntza idatzian euskara estandarra, batua,

⁸ Soziolinguistikakoa, ziur aski.

⁹ Dirudienek Bonapartek erabili zuen aurrenik izen hau, Txillardegik “adizki etikoa” ere deitzen du bere gramatikan. Aurrerago ikus daiteke kontzeptu guztien azalpena adibideekin.

erabili da, eta literatur tradizioan, historikoan nahiz mende honetakoan nahiz berrian ez da ia alokutiborik erabili. Horrenbestez, alokutiboa euskalkien ahozko hizkuntzaren eremuko ohitura izan da oraintsu arte¹⁰.

Beraz, aurreko paragrafoaren arabera, egokiena, euskalkiz euskalki, herriz herri, eskualde guztietako aldaera eta xehetasun guztien berri ematea litzatekeen arren, honelako lan zabala bertze aldi baterako edo bertze batendako utzi beharko da, eta nire esku dudan eremuan jasoa edo lorturiko dokumentazioan bildua erabiliz halako deskribapen laburra emanen dut.

Galera prozesua oraindik gehiegi aurreratzekeko esparruetan¹¹, tokian tokiko gorabeherak aldatuz, horrelako zerbait genuke:

Etxean, hurrei, txiki-txikiak direlarik, aditz ezalokutiboz mintzo zaizkie, harik eta kozkortu arte, orduan tokari nahiz nokari ekinez. Honela, haur kozkortuak edo gazteak berari zuzenduriko aditz alokutiboak entzunen litzuzke, eta ez luke etxean ezalokutiborik ia inoiz entzunen bere gurasoen arteko iharduna ez balitz¹².

Kalean adin aldeak baldintzatuko luke erabilera, urte gutxiren aldea izanez gero toka eta noka nagusi; urte askoren aldeaz, berriz, gazteak zaharra goari ezalokutiboa eta zaharrak gazteari toka edo noka¹³.

Baina alokutiboaren galera nabarmenak oso euskalki eta esparru gutxitan gorde du horrelako egoerarik. Euskalki gehienetan beherakada edo galera prozesua gertatu da. Badirudi galera hori erritmo ezberdinetan baina urrats jakinetan izan dela. Zera erran nahi da, zenbait eskualdetan bertze batzuetan baino arinago bete da prozesua, hasi ere agian lehenago egin zelako, baina galtzeko bidean behin-behineko oreka egoerak igaro dira, oso antzerakoak, eskualde ezberdinetan.

Noka da aurrena galdu den erabilera, eta tokak behin-behineko oreka lortu duela dirudi hainbat eskualdetan, askoz galera mantsoagoa duelarik, zaharrek gazteei eta sexu berekoen artean gehiago mantendu da sexuen ezberdinen artean baino. Hala ere oso zaila litzateke aurreko hori bezalako xehetasunetan sartzea, herrian herriko bitxikeriak baitaude¹⁴.

¹⁰ Hitanoaren aditzen paradigma Euskaltzaindiak eman berri du. Ikus "Euskaltzaindiaren azken arauak".

¹¹ Nik ezagutu ditudanetan, Urola bailaran.

¹² Ezkondu aurretik oraintsu arte guztiz arrunta izan da hitanoa bikotean, baina harremana sendotu heinean, ezkondu ondoren ere bai, ezalokutibora aldatzea izan da ohikoena. Umea izanez gero aldaketa hau ziurtzat jo daiteke. Herriko adinekoek diotenez bertzela haurrek ez lukete ezalokutiboa ikasteko aukerarik izanen. Azken hamarkadan bertan neuk ezagaturiko bikote baten kasua dakarkit adibide gisa: hitanoa erabiltzen zuten bikote garaian, ezkondu ondoren ere ez zuten ohitura hori aldatzeko asmorik eta, lehendabiziko umea jaio zenean, aiton-amonek propio aholkatu zieten "elkarri zu erraznez" hitz egin ziezaiotela, haur tikiaren eta "itxura" onaren mesedetan.

Erdaldunen seme-alabek ere, euskara kalean ikasirik zutenek hitanoa bertzerik ez zuten erabiltzen, hitanoa guztiei, baita apaizei ere. Honelako adibideak gogoratzen dituzte zaharrek, beraiantzat oso harri-garria eta deigarria baitzen apaizei "toka" hitz egitea, "berorika" hitz egin behar zitzaizkien garaietan. Gaur egun ere zenbait herritan "hitanoa" ezalokutiboa baino hobeto menperatzen duen erdaldun gijasamerik bada.

¹³ Kontu hau sarritan sinplifikatuegi azaldu izan da, hitanoa "konfidantza" eta "adiskidetasuna" adierazteko tratamendu mota dela erranez. Herri batetik bertzera aldeak badiren arren, azalpen horrek gaztelaren eragina duela dirudi, "tú" eta "usted"-en artean dagoen bereizketaren kalkoz edo paralelismoz.

¹⁴ Aurreko kontu gehienak neure jatorrizko eskualdean oinarritu ditut (Urolan) eta bertze eskualde ezberdinetako hiztunen usteak eta inpresioak gehitu edota bibliografian irakurri.

Gaiak berak dakarkigun galdera zera da: zergatik gertatu da galera hau?¹⁵ Hainbat erantzun posible bururatzen da: Hizkuntzaren galerarekin batera loturiko prozesua da?¹⁶ Inguruko hizkuntza indartsuagoekin izaniko kontaktuagatik?¹⁷ Komunikabideak estandartzeagatik? Gure gizartea globaltzeak hizkuntza ezberdinen artean eragiten duen tratamenduen kalkoagatik? Garai batean aipatzen ziren arrazoi erlijioso eta puritanoengatik? Hizkuntzaren berreskurapen prozesuan hitzun berri prestatuak, hau da, tratamendu ezberdinak ezagutzeko modukoak, lortzeko ezintasunagatik? Baliteke erraniko guztiengatik eta bertze batzuegatik ere. Nolanahi ere lehenago gertatuak aztertzea zailagoa delakoan orain gertatzen ari direnak aztertzen saiatuko naiz.

3. TESIA

Euskal Herriko herririk euskaldunena hartuko bagenu ere, denok ados geundeke balizko herri horretan euskarak oraindik ez duela erabateko normalizazioa lortu, hitzun asko eta asko euskaraz analfabetoak direlako, zenbait gai buruz mintzatu ahal izateko behar adina lexikorik ez dutelako; baina hala ere herririk euskaldunena denez suposatuko dugu gehienetan bertako biztanleek euskaraz hitz egingo dutela, beraien euskalkian, noski... eta euskararen egoera eznormalizatua normalizatze bidera eraman nahi den une edo garai honetan ezinbesteko garrantzia du eguneroko bizitza modernoaren esparru guztietan erabilgarri den hizkuntza modernoa eta hiritarra ere izan daitekeena lortzea. Behar bada euskalkiaren eta batuaren arteko uztarketa egokia, bizitzako esparru banaketa logikoa izan liteke bidea. Hementxe sortzen zaigu euskalkiaren eta batuaren arteko gatazka, edo nahi bada, harremana dei dezakeguna. Eskolak, erakundeak eta komunikabideak dira euskara estandarren esparruak. Gainerako esparruak euskalkienak. Horretarako, hitzunak ezezik hizkuntza estandarra ere, euskara batua, alegia, behar bezala doiturik beharko ditugu.

Komunikabideetan hizkuntza estandarrak aurrerapauso handiak eman ditu azken urteotan, prentsan, telebistan eta irrati-tan. Hasierako ezulertze beldurrak dagoeneko ez dira entzuten. Komunikabideetan hizkuntza formala da nagusi, nahiz eta zenbait irratsaio eta telesailetan hizkuntza kolokialak bere tokia aurkitu. Beraz, ezalokutiboa da nagusi, eta izugarritzko indarra du te eredu horiek. Bada alokutiboak har dezakeen esparrurik, urriago izanagatik, filmeetan eta telesailetan agertzen diren elkarrizketetan eta eztabaida saioetan.

Eskolak orokorki esparru formalak eta hizkuntza idatzia lantzen dituzten erakundeak dira, ahozko hizkuntza, bere alde formalean nahiz ezformalean, askoz gutxiago. Balantza, zalantzarik gabe, idatziaren alde dago. Eskoletan ez dago aurrikusirik, prestatuak edo programaturik, eztabaidaturik edo erabakirik, zer nolako tratamendua izanen den irakasleen eta ikasleen artean egin

¹⁵ Aurreko analisisia zuzena bada, noski.

¹⁶ Hizkuntz ordezkapena urte gutxi dela gertatu den lurraldeetan aztertu beharko litzateke, Erronkarin, errate batera. Behar bada galera biak, hizkuntzarena eta alokutiboarena batera izan ziren zenbaitetan.

¹⁷ Historian atzera joz, “zu”ren lerraketa eta indartzea ertaroan beharbada horregatik izan zen, Ertaroko gizartearen uhin erraldoia hizkuntza guztietan arrastoa utzi zuena.

daitezkeen konbinaketa eta testuinguru mota ezberdinetan. Jakinekotzat jotzen da ikasgairen baten inguruko berriketak direnean ezalokutiboa izanzen dela. Baliteke gai ezakademikoetan, pasiloetan eta jolastokietan alokutibora lerratzea. Baina pertsona berberen artean tratamendu batetik bertzera igarotzeko ohiturarik ba ote dago? Ba ote du zentzurik?¹⁸. Ziur aski, errealitatea ez da hain konplexua izanen. Naturaltasun handiz konponduko dira gatazka txiki horiek. Batek baino gehiagok erantzun dezake egoera dagoen bezala ongi dagoela, horrelaxe izan behar duela, eta ez naiz eztabaida horretan sartuko, agian, munduko bertze nazioetan ere, horixe delako eskolaren funtzioa. Iritzi horri jarraituz etxean eta kalean jaso beharko litzateke gainontzekoa, ez-formalarena eta tratamenduena. Agian norbait ausartuko litzateke erratera eskolak gure euskal gizarte eznormalizatuan, bereak ez diren esparruak bere egin ditzakeela. Baina kontua ez da hori, edo ez hori bakarrik.

Berriro ere balizko herririk euskaldunena gogora ekarriz, erran dezadan horietan ere, horrek guzti horrek nolabaiteko eragina izan behar duela, eta eragiten du, dudarik gabe. Guraso gazteenen aldetik ikusten da, ez diete etxean beren haurrei toka eta noka egiten¹⁹. Horren ondorioz senideen artean ere ez da erabiltzen²⁰. Etxeko esparrua itxi egiten zaio alokutiboari. Hurrengo urratsa kalea da²¹, mantsoago gertatuko dena. Behar bada, azken iritzi hau oso ur handitan sartzea da, gehiegi erratea da, baina, ikerketa zabalago baten esperoan, uste horretan nago.

Bertzalde, ez da ahantzi behar euskaldun gehienek ez dutela alokutiboa-rekin ia inolako kontakturik izateko aukerarik. Zonalde ezeuskaldunetako euskararen berreskurapen prozesua zenbait erakunderen esku dago, eskolen eta euskaltegien esku, batik bat. Ezalokutiboaren aldeko hautapena garbia da eremu horietan. Eta zonalde horietako euskaldunek eskolaz kanpo inola ere ez lukete alokutiboa bereganatuko, edo oso zaila litzateke. Horregatik, lehenago aipaturiko herri euskaldunei buruzko iritzia okerrekoa balitz ere, euskaldunen arteko kontaktuak, harremanak, komunikazioak eta abarrak estandartzeko prozesuan daude, ezalokutiboaren alde, gehienetan..

Bada orain arte aipatu ez dudan bertze eragile indartsu bat ere, nahiz eta garbi ez dagoen zein aldetara eragiten duen; gure inguruko hizkuntzetan dauden tratamenduak²².

Nahiz eta Euskaltzaindiak batuaren, hizkuntza estandarraren, alokutiboaren aditz paradigmak erabaki, arautu eta osatu horrek ez du beren erabilera

¹⁸ Ikertzekoa da zer nolako eragina duten irakasleek herri ezberdinetako euskalkietan eta, zehatzago, tratamenduetan, kontutan hartu behar da makina bat beraien sorterriz kanpo aritzen direla lanean. Beraz, ohitura desberdinekin egiten dute topo.

¹⁹ Oraindik orokorra ez bada ere, badirudi joera hori nagusitzen ari dela. Baieztapen hau neure behaketan eta neure inguruko inpresio hutsetan oinarritzen da. Beraz, aitortu behar dut oinarri zientifiko txikia duela. Hitanoaren transmisioa, behar bada, nagusiki “bertikalean” (gurasoek seme-alabei) izanen da, eta agian neurri txikiagoan “horizontalean” (nahiz eta gero kalean, lagunartean, horizontalean, askoz gehiago garatu eta erabili).

²⁰ Gogoan dut mutil kozkorra nintzelarik senideen artean hitanoa erabiltzen ez zuten kasu bixiak iruditzen zitzaizkidala.

²¹ Neska taldeak hizketan entzun ondoren (ozen hitz egiten duenik bada), duela oso gutxi ehuneko ehunak “noka” hitz egiten zuen herrietan ere, aldaketa ematen ari da.

²² Gaztelanian askoz markatuago daude, batetik bertzera “distantzia” handiagoa da, gaztelaniazko “tú” eta “usted”-en artekoa euskararen “hi” eta “zu”-ren artekoa baino, zenbait testuingurutan pareka ezinak direlarik.

inola ere ziurtatzen. Hori ez baita aski. Gizarteko “rol” desberdinen arteko harremanak finkatu gabe baitaude, estandarra erabiltzen duten hiztunek ere, euskalkietan bezala, harreman ereduak behar baitituzte²³.

Laburbilduz, euskararen etorkizunean ezalokutiboaren nagusitzea iragar daiteke, baita gaur egun alokutiboa mantentzen den esparruetan ere. Norabide horretan dago, bederen. Epe motzera nokaren desagerpena, epe luzera tokarena.

Ekonomiagatik ere, hau da, esfortzu txikienaren legea aplikatuz, ondorio horretaraxe goaz.

Ataka honetan gaudelarik, hizkuntzaren bilakaera naturala, baldin eta horrelakorik bada, plazara daiteke geldiarazterik den ala ez. Komeni den ala ez, lehenagoko lanik, premiazkoagorik ba ote den. Hiztun komunitate batek bere “borondatez” bilakaera logiko eta naturalari muzin eginez, neurriren batean aldaketari aurre egin diezaiokeen ala ez. Arrazoi asko aipa daitezke helburu hori justifikatzeko: aberastasuna, tradizioa, sentimendua, ... Oso zaila da, ez dut ona edo txarra denik erranen, zaila, bertzerik gabe. Euskaldungo osoan ia ezinezkotzat jo daiteke. Esparru edo eskualde murriztagoetan, apika. Ondorioz, zerbait egin nahi bada, aktore guztien arteko akordio zabala eta adostasuna beharko da. Erakundeen, Euskaltzaindiaren, eskolaren eta komunikabideen artekoa.

Denok ezagutzen dugu gaztelaniaz gertatzen ari den antzeko prozesu bat. Sexismoa baztertu asmoz garai batean “epiceno ambiguo” zirenak orain era bietan eta bukaera biek inerrateko ohitura zabaltzen ari da, komunikabideetan eta politikoen ahotan, gehienbat. Lehen “padres” zena orain “padres y madres” da, lehen “ciudadanos vascos” orain “ciudadanos y ciudadanas vascos y vascas”. Garbi dago “ekonomikoagoa”²⁴ ez dena, luzeagoa eta nahasia-go baizik. Baina une honetan “politikoki zuzena” deritzanak eraginiko horrelako joerak antzeman daitezke. Bidezkoak diren ala ez eztabaidatu gabe, arrakastarik izanen duten ala ez jakin gabe, zalantzarik ez dago jarrera berri-tzaile horrek suntsitu nahi duen gaztelarako generoen ikuspegi “matxista” zerbaitetan aldatuko duena. Mugimendu sozialek bere eragina, bere ukitua ezartzen diete hizkuntzei.

Gaztelaniako adibide hori polita den arren argi eta garbi erran behar da, euskarari dagokionez, gaur egun horrelako akordio zabalen bat gertatu ahal izatea, arrazoi sozialengatik, ez dela aurrakusten²⁵. Horretan jende askok indar handiak jarrita ere oso zaila. Baina hala eta guztiz ere, bertze erdibide batzuk har daitezke. Alokutiboaren esparrua neurri handi batean lagun artea dela erraten da, hizkuntza kolokialean duela berezko tokia. Erabateko arrakasta ez badu ere baliteke “fossil” moduan, hainbat esamoldetan garaipenak lortzea. Adibidez testuinguru kolokialetan, gainontzeko aditz guztiak ezalokutiboak dituelarik edonork entzun ditzake “izorra hadi” “hartzak” bezalakoak. Joera hori “naturalagotzat” jo liteke²⁶.

²³ Nork erabiliko du “toka”? Eta “noka”? Norekin? Adin bereko mutilek mutilei? Neskek neskekin? Oso konfidantza handikoen artean baino ez? Eta nesken eta mutilen artean? Gurasoek seme-alabei ez? Nola transmitituko da?

²⁴ Idaztean berriz, askoz jarrera “ekonomikoagoz”@ grafiaz idazten dena.

²⁵ Auskalo etorkizunean.

²⁶ Delako joera “natural” hori behar bezala indartuz gero aberasgarria litzateke. Azken boladan argitaraturiko “Mantxut” (zazpiak batman) liburua, Argia astekarian ere zabaltzen dena bide hau urratzen ari da.

Euskarak ere, bere neurrian, agian, horrelako bideak har ditzake, euskaldungoak nahi badu. Edozein eratan bideren bat hartuko du euskarak, hizkuntza guztiek bezala aldatuz eginen baitu bere bidea. Bizitza etengabeko bilakaera baita hizkuntzentzat ere. Denborak erranen du.

4. BIBLIOGRAFIA

- ALBERDI, J. "Euskarazko tratamenduen ikuspegia", *ASJU* (1986), 148-202.
 "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: Markinaldeko kasua", *ASJU*, (1986), 418-486.
- AZKARATE, Xabier, "Hika, zuka eta berorika", Argitalpen pribatua, (1977).
- AZKUE, R., "Morfología vasca", La Gran Enciclopedia Vasca, (1963).
- BOUDA, K., "Les formes respectueuses du verbe mixain", *Eusko Jakintza*, 2 (1948), 595- 615.
- EGUZKITZA, J., "¿Conjugación familiar o dialogada?", *Euskara*, 6 (1925), 6-15.
- GARZIA, R., "Hikako aditz-joko alokutiboa bizkaieraren ekialdeko subeuskalkian (Markina aldean)", *FLV*, 38 (1981), 23-78.
- KNÖRR, E., "Hiketa eta hitanoaz", *Euskera*, 22 (1977), 701-719.
- LAFITTE, P., "Grammaire basque", Elkar, (1978).
- OIARTZABAL, M., "Iketa aditz-iokaeraz", *Euzko gogo*, (1951), 30-33.
- OREGI, J., "Birrazterpen bat: hiketa eta zuketa", *Euskera*, 22 (1977), 685-699.
- REBUSCHI, G., "Formes allocutives", *Iker*, 1 (1981), 307-321.
- SATRUSTEGI, J. M., "Xukako aditz joskera Luzaideko mintzairan", *Iker*, 1 (1981), 343-354.
- TXILLARDEGI, "Euskal Gramatika", Ediziones vascas, (1978).
 "Hikako eta zukako aditz-joko konfigurazioaz", *Euskera*, 13 (1968), 127-136.
- YRIZAR, P., "Contribución a la dialectología de la lengua vasca", Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, (1981).
- ZATARAIN, A., "Ni naiz eta i aiz", *Euskera*, 22 (1977), 739-745.

LABURPENA

Egileak bere esperientzia subjektibotik abiatuz ezagutu dituen tratamendu motak deskribatzen ditu, tratamenduen gaur egungo egoera zertan den kokatzen du eta alokutiboaren erabileraren bilakaera aztertzen du, epe ez oso luzera desagertuko dela iragarritz.

Euskalkien esparrua gaindituz, hizkuntza estandarrak, batuak, tratamendu ezberdinak nolabait mantenduko baditu, hitunen "rol" eta harremanen eredu bateratua behar duela azpimarratzen du, ez dela aski izaneren Euskaltzaindiak arauturiko aditz alokutiboen paradigma batua.

Azkenik, hizkuntzaren bilakaera naturalean desbideratze konszienteak oso zailak izan arren, gizarteko korrante nagusien, erakundeen eta hitunen gehiengoaren adostasunez gerta litezkeela aipatzen da.

RESUMEN

El autor, partiendo de su propia experiencia personal, describe los tipos de tratamiento que conoce, sitúa el estado actual de la cuestión y analiza la evolución del uso del allocutivo, anticipando su desaparición a no muy largo plazo.

Superando el ámbito dialectal, subraya que para que el euskera estándar, el euskera "batua", conserve los diferentes tipos de tratamiento, no es suficiente con la unificación del paradigma del verbo allocutivo regulado por Euskaltzaindia, que además necesita un modelo unificado de los diferentes "roles" de los hablantes y sus relaciones sociales.

Concluye sugiriendo que, aunque sea muy difícil el cambio de rumbo, podría ser posible si confluyeran las preferencias sociales, las instituciones y el acuerdo mayoritario de los hablantes.

RÉSUMÉ

En partant de sa propre expérience personnelle, l'auteur décrit les types de traitement qu'il connaît, situe l'état actuel de la question et analyse l'évolution de l'utilisation de l'allocution, anticipant sa disparition à relativement court terme.

En dépassant le domaine dialectal, il fait remarquer que pour que l'euskera standard, l'euskera «batua» conserve les différents types de traitement, l'unification du paradigme du verbe allocutif régulé par Euskaltzaindia n'est pas suffisant, qu'il a besoin de plus, d'un modèle unifié des différents «rôles» des personnes le parlant et de leurs relations sociales.

Il conclue en suggérant que, bien que le changement de cap soit difficile, il pourrait être possible si les préférences sociales, les institutions et l'accord majoritaire des personnes parlant euskera confluait.

ABSTRACT

The author describes from his own personal experience the types of known treatment, situates the current state of the matter and analyzes the evolution of the use of the allocutive form. In so doing, he envisages its disappearance in the not too distant future.

By overcoming the dialectical field, he emphasizes the fact that in order for standard Euskara –Euskara “batua”– to preserve the different forms of treatment, unification of the paradigm of the allocutive verb regulated by Euskaltzaindia (the Basque Language Academy) is not enough. A unified model of the different roles of speakers and their social relationships is required.

He concludes by suggesting that, although a change in direction may prove very difficult, it might be possible to achieve this if social preferences, institutions and majority agreement on the part of speakers should happen to converge.